

## **BI MILA ETA HAMAİKAKO URRIAREN 10Ean ETXARRI ARANAZKO BATZARRAK EGINDAKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA**

2011ko urriaren 10ean arratsaldeko 20:00etan, Etxarri-Aranazko Udalak ez ohiko Osoko Bilkura deitu, eta lehenengo deian osatu zuen, arauzko moduan deitu ondotik. **JOSE IGNACIO BAKAIKOA ARISTORENA** alkatea mahaiburu izanik eta ondoko zinegotziak bertaratu ziren:

### **Bertaratuak**

**ENKA MAIZ ULAYAR and.**  
**AITOR KARASATORRE MUGURUZA jn.**  
**EDURNE IGOA LIZARRAGA and.**  
**IÑIGO LAZKOZ LEKUONA jn.**  
**ARACELI ERDOZIA ANSO and.**  
**MARIA ARANTZAZU ARTIEDA IGOA and.**  
**MAIDER GOÑI ERRAZKIN and**  
**MIGUEL ANGEL GOÑI IXURKO.**

### **Ez Bertaratuak**

**FRANCISCO MANUEL CAMPOS ARAÑA Jn.**

Eta artatuz, **Silvia Gonzalo Etxarri** udal idazkaria

### **1.- AURREKO AKTA.**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondotik, 2011ko abuztuaren 30ean egindako Osoko Bilkuraren akta aztertzen da. Miguel Angel Goñik hitza eskatzen du eta jakinarazten du 3. puntuko 5 paragrafoan euskarazko testuan eta gaztelarazkoan ez duela gauza bera jartzen. Ikusirik euskarazkoa ondo dagoela, bestea zuzentzen da.

Esaten duenean: “Límite máximo anual a cobrar entre todos los concejales” esan behar du: Límite máximo anual a cobrar por cada concejal”

Zuzenketa NAOn eta iragarki oholean jarriko da.

Osoko Bilkurak zuzenketa egin ondoren eta hori kontutan izanda akta ratifikatzen da.

### **2.- UDAL PLANEKO EGITURAZKO ALDAKETA PUNTUALA: SR7, AR7, UE23 (BEHIN BEHINEKOA)**

Idazkariak espedientea itxi gabe dagoela konturatu dela azaltzen du, adibidez,

Nafarroako Gobernuko eta Konfederazioko txostenak falta direla. Hori dela eta Alkateak gaia gai ordenatik ateratzen du. Udalbatzak ados dago.

### **3.- BAKE EPAILEA IZENDATZEKO PROZEDURA HASTEA**

2011/09/21ean Oraingo bake epailearen, Celestino Maiza Auzmendiren, errentziaren berri iritsi da. Bake epailearen kargua hutsik dagoela ikusirik Udalbatzak aho batez erabaki du kargua betetzeko prozedura hastea.

Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa eta Bake Epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamendua betez, udalerriko bake epaile titularren kargu hutsa betetzeko deialdia iragartzen da. Eskabideak Udalaren bulegoetan aurkeztuko dira, eta interesdunek hamabortz egun baliouduneko epea izanen dute horretarako, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

---

*Vacante de juez de paz*

*En cumplimiento de la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial, y del Reglamento 3/1995, de 7 de junio, de los Jueces de Paz, se anuncia convocatoria pública para la provisión de la vacante de Juez de Paz titular de este municipio, estableciéndose un plazo de quince días hábiles, contados a partir de la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, para que las personas interesadas puedan presentar su solicitud en las oficinas municipales.*

### **4.-OIHAN ENKANTEA: 2009/2010 PLANEKO LOTEA ESLEITZEA**

Udalak, behar bezala baimendurik, gutun-azal itxien bidezko enkante publikoa egingen du

Rodal/División dasocrática	Especie	Tipo de producto(m3)				
		Nº de pies	Volumen de madera	Volumen de leña	Volumen poste	Volumen total
Cantón 34	Haya	1.032		438		438
Cantón 34	Roble Americano	948		480		480
Cantón 34	Roble Americano	1.337	1.081	488		1.5699
Cantón 60, 61 y 87	Haya	4.436		1.782		1.782
Cantón 80, 81 y 54	Haya	2.852		1.674		1.674
Rodal 41b	Pino laracio	767	197	153	114	464

Lote bakarra (2009/2010ko Plana): Parajeak: Maiztegur, Txargorri, Jentilzulo eta Altziturrieta

Hasierako prezioa: 87.544 euro (BEZ- aparte)

Enkantean parte hartzeko aurkeztu behar den dokumentazioa:

a) Lanbide-kalifikazioari buruzko agiria

b) Behin-behineko fidantza: %15

Proposamenak bi gutunazaletan aurkeztu beharko dira. Lehehengo gutunazalean aurrean aipatu dugun dokumentazio eta fidantza eta bigarren gutunazalean proposamen ekonomikoa, sinatuta.

Baldintza-agiria: interesdunen eskura dago Etxarri Aranazko Udaletxean

Eskaintzak aurkezteko tokia eta epea: Etxarri Aranazko udaletxean, iragarki hau udaletxeko oholean argitaratu eta biharamunetik hasita hemezortzigarren egun. (bulegoko ordutegia, 10:00 etatik 14:00ak arte)

Proposamenak noiz ireki: eskabideak aurkezteko epea bukatu eta bi egun geroago, 13:00etan. Publizitatea gehiago izateko Nafarroko Kontratazio Portalean iragakia argitaratuko da.

---

*El Ayuntamiento debidamente autorizado por el Gobierno de Navarra, saca a la venta en pública subasta, por el procedimiento de pliego cerrado, el siguiente aprovechamiento forestal:*

*Lote ÚNICO.-Plan 2009/2010. Parajes: Maiztegur, Txargorri, Jentilzulo y Altziturrieta*

Rodal/División dasocrática	Especie	Tipo de producto(m3)	Volumen de madera	Volumen de leña	Volumen poste	Volumen total
		Nº de pies				
Cantón 34	Haya	1.032		438		438
Cantón 34	Roble Americano	948		480		480
Cantón 34	Roble Americano	1.337	1.081	488		1.5699
Cantón 60, 61 y 87	Haya	4.436		1.782		1.782
Cantón 80, 81 y 54	Haya	2.852		1.674		1.674
Rodal 41b	Pino laracio	767	197	153	114	464

*Precio base de licitación: 87.544 euros (IVA-Compensación excluido)*

*Las proposiciones se presentarán en dos sobres cerrado y firmados por el licitador y que contendrán:*

*Sobre nº1: el Documento de Calificación Profesional y Fianza provisional del 15% y el Sobre nº 2 la Proposición Económica.*

*Se presentará dentro de los 18 días hábiles siguientes a la publicación de este anuncio en el tablón de anuncios municipal (Horario de oficinas de 10:00 a 14:00h)*

*La apertura de las proposiciones económicas tendrá lugar dos días después de la finalización del plazo de presentación de las proposiciones a las 13:00h. Si el último día es sábado o inhábil, se trasladará al lunes siguiente.*

*El Pliego de las Condiciones y prescripciones técnicas que van a regir la subasta se hallan en Secretaría municipal a disposición de los interesados.*

*Para una mayor publicidad se publicará el anuncio en el Portal de Contratación de Navarra.*

## **5.- AURREKONTU ALDAKETAK**

### **CEDERNA GARALUR : 2011/04**

2011/04 Aurrekontuko Aldaketa. Behin betiko onespena CEDERNA GARALUR

Aurrekontuko aldaketa hasiera batez onesteko erabakia 2011ko 182. zenbakian Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, irailaren 14an. Jendaurreko epean inork alegaziorik aurkeztu ez duenez, aurrekontuko aldaketa horiek behin betikoz onetsi eta argitara ematen dira, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz.

### **DORREMONEA: 2011/05**

Alkateak jakinarazten du Dorremoneako obra egiteko 2011eko aurrekontua aurreikusita ez zegoela. Kontuhartzaileak egindako txostenean ondoko aurrekontuaren aldaketa aholkutzen dela:

2011/05			KREDITO TRANSFERENTZIA / DIRUSARREREK SORTUTAKO KREDITOA	
			OSOKO BILKURAREN AKORDIOA	
			Gastua (kredito jasotzailea)	Zenbatekoa
1	432	68201	DORREMONEA OBRA	38.825,45
			<b>OROTARA (GASTUA)</b>	<b>38.825,45</b>
			Finantziaketa (kredito emailea)	Zenbatekoa
1	314	16001	GIZARTE SEGURANTZA	10.693,54
			Kreditoa sortzen duen dirusarrera	
1		75531	DORREMONEA MUROKO OBRAREN DIRULAGUNTZA	28.131,91
			<b>OROTARA (FINANTZIAKETA)</b>	<b>38.825,45</b>

Kontu-hartzailearen txostena ikusi eta gero, Udaltzarak erabaki du 2011eko aurrekontu-aldaketak hasiera batez onestea: 2011/05 Kreditu transferentzia eta dirusarrerek sortutako kreditoa.

Espedienteak idazkaritzan egonen dira ikusgai hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek edo interesdunek azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten; hori guztia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

**OHARRA:** Idazkariak informatu du Arluzepeko kaxa elektrikoren obra eta Aldapasoroko obrak esleitzeko partidak sortu beharko direla.

## **6.-UTZUBARTXIKIKO KOMUNALA**

3. poligonoko 420 lursaila, Juan Francisco Mundiñano Sodupe eramaten zuen komunala, Andra Mari ikastolara ikastola handitzeko eman zaio. Egoera ikusita eta aldaketa hori interes soziala eta orrokorra denez, esleidunekin aurretik adostuta eta idazkariak entzunda, Osoko Bilkurak aho batez erabaki du:

1.- Juan Francisco Mundiñano Soduperen Utzubartxikiko komunalaren kontratua bertan behera uztea, inolako kalde ordainak ordaindu gabe, baina kontuan izanda aurretik aipatutako interesa orokorra eta esleipena 2012ko abenduan bukatzen zela, komunal horren ordeztu Utzubar komunaleko (pol. 2 partzela 538) zati bat zuzenean esleituko zaio. Baldintzak aurreko komunalak bezala, hau da, 2012/12/31era arte.

Horretarako,

2.-Jesus Mari Villarejoren esleipenari adostutako metroak gutxituko zaio, zabalera hori JF Mundiñanoti pasatzeko.

3.-JF Mundiñano Utzubargo Komunala esleitzen zaio.

4.-Akordioa interesatuei jakinaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.

## **7.-ERREPIDEEN ZESIOA**

Udalak azken urte hauetan eskatuta Nafarroako Gobernuak bi errepideen doako lagapena egitea erabaki du eta Ebazpenaren ziriborroa bidali du. Alde batetik, NA-120 Lizarra-Beasain, hau da 3. poligonoko 1443 partzela eta bestetik, NA-2410 Barranca (Arbizurako bidea) 2. poligonoko 335 lursaila.

Udalbatzak aho batez erabaki du proposamena onartzea eta Ondaren zerbitzura akordioa jakinaraztea.

Zinegotziak diote lagatzen diren lursailak udalak ongi mugatu beharko direla.

## **8.-ELEAK-EN MOZIOA**

Bildu udal taldeak ondorengo mozioa aurkeztu du.

**“ELEAK” ESKUBIDE ZIBILEN ALDEKO MUGIMENDUAREN MOZIO  
PROPOSAMENA, URRIAN MADRILGO AUZITEGI NAZIONALEAN**

## **HAMAIKA GAZTE NAFARREN KONTRA EGINEN DEN EPAIKETA DELA-ETA ARRAZOIEN AZALPENA**

11 gazte nafar epaituko dituzte Auzitegi Nazionalean, Madrilan, urriaren 4, 5, 6, 17, 18 eta 19an. Haietako bakoitzarentzat 10 urteko kartzela-zigorra eskatzen dute. Erakunde terroristakokide izateaz akusatuta daude Iruñerriko gazte mugimenduan egiten duten lan nabarmeneta agerikoagatik. Denen kontra, akusazio orokor bat dago: Segi gazteerakundeko kide izatea, legez kanpokotzat hartu baitzuen Auzitegi Gorenak 2007. urtean. Auziperatutako gazteek antolatu eta politika egiteko duten eskubidea defendatzen dute.

“Eleak” Euskal Herriko Eskubide Zibilen aldeko Mugimenduak askatasun politikoen kontrako epaiketa baten aurrean gaudela salatzen dugu, hamaika lagun zigortu eta kartzelatu nahi dituztelako, nahiz eta egin dutena oinarrizko eskubideetako batez baliatzea besterik ez izan: politika egiteko eskubideaz. Hau ezin da inondik inora justifikatu. Bakera eta gatazkaren konponbidera ailegatzeko aukerak sortzen ari diren honetan, estatuek arerio politikoen kontrako errepresioaren eta kartzelaren aldeko apustu garbia egiten jarraitzea oso larria iruditzen zaigu. Argi eta garbi dago zein den herritar gehienen nahia: prozesu honek aurrera egitea, eszenatoki benetan demokratiko batera ailegatzeko, inolako indarkeriarik gabe, eta herritar guztiak eskubide guztien jabe direla. Eta gehiengo horri dei egiten diogu bide honi atxikiz prozesua blindatzeko, herri mobilizazioaren bitartez prozesua blokeatzeko maniobrak indargabetzeko. Helburu horrekin, dei egiten diegu eragile sozial, sindikal eta politiko guztiei, baita herritarren ordezkariak duten erakundeei ere, erantzun bateratua eman diezaieten epaiketa hauei eta askatasun faltari. Udal honek giza eskubideei eta pertsona guztien eskubide zibil eta politikoei dien errespetuaren erakusgarri, mozio honen aldeko sostengua eskatzen dugu

### **MOZIOA:**

1.- Udal honek elkartasuna adierazten die politikan parte hartzeko eskubideaz baliatzeagatik Madrilgo Auzitegi Nazionalean epaituko dituzten pertsonen, eta Estatuko botereei eskakizuna egiten die ideia guztiak eta proiektu politiko guztiak askatasunez defendatzeko eskubidea urratzen duten prozesu judizial guztiak bertan behera uzteko.

2.- Udal honek bakearekiko eta pertsona guztien eskubide zibilen errespetuarekiko konpromisoa adierazten du, eta, horregatik, bat egiten du hainbat eragile sozial eta politikok deitutako manifestazio-deiarekin. Manifestazioa Iruñean izanen da, urriaren 1ean, goiburu honekin: “Por las libertades políticas. Eskubide guztiak guztientzat”.

3.- Udal honek erabaki honen berri emanen die herritarrei, eta udalerriko bizilagunak animatuko ditu gizarte osoarentzat ahalik lasterrena bakea eta askatasun demokratikoak nagusi diren eszenatoki bat lortzeko dinamikan parte har dezaten.

Alkateak mozio aztertu ondoren, Udaltzako aho batez erabaki du mozioa onartzea eta ELEAK-i akordio honen berri ematez ematea.

Eta aztergaietan beste gairik ez dagoenez, 20:40an presidenteak Osoko Bilkura amaitutzat ematen du, akta idazkariarekin batera sinatu, eta idazkariak horren fede ematen du.